

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan

2019ko otsailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga” eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2019ko otsailaren 22an, ostiralean, egin da Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu, 12:30ean, Tronu Aretoan, Uxue Barkos lehendakaria buru dela egingo den ekitaldiari buruz.

1. Osoko bilkurako (2019-01-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du. P. Zabaleta euskaltzainak proposatu du 2. orrialdean, bai eta aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko txostenean (Santutegiko izen ohikoenak), hainbatetan, ageri diren santu- eta santa-izenen orde, ahal den guztietan, santuen erabiltzea. Eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

Bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko urtarilaren 25eko bilera-agiria onartu da.

2. Onomastika: 66. araua (Santutegiko izen ohikoenak). Araua zuzentzeko, osatzeko eta emendatzeko proposamena. Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

A. Iñigok eta P. Zabaletak aurkeztu dituzte oharrak. Onomastika batzordeak, oharrak aztertuta, idatzizko erantzuna prestatu du, eta banatu. A. Mujika Onomastika batzordeko idazkariak eman ditu azalpenak.

A. Iñigok bere iradokizunean azaldu du EODAn dauden zenbait izenen grafia ez datorrela bat 66. arauan ageri denarekin. Batzordeak erantzun du egia dela hori, EODA ez baitzen diseinatu araua dena eta ez dena bereizteko. Pertsona-izendegia berregiteko eta berrantolatze plan bat bada abian Onomastika batzordean, eta, besteak beste, arazo hori ere kontuan hartu beharko du batzordeak, eta irtenbide bat proposatu. Onartu egin da.

A. Iñigok, bigarren iradokizunean, adierazi du “Rudesindo edo Rosendo” ageri dela sarrera batean, hots, gaztelaniaz soilik erabiltzen den *Rosendo* formari ere eman

zaiola sarrera euskal izen gisa. Eta, aldiz, “Onufrio” aukera bakar gisa ageri dela, eta ematen duela irizpide bera aplikatuz “Onufrio edo Onofre” ere eman beharko litzatekeela. Batzordeak, erantzunean, adierazi du arrazoi duela A. Iñigok aipatu duenean desberdin jokatu dela bi kasu horietan. Onufrioren kasuan, jatorrizkora jo eta latinezko *Onufrius* formatik *Onufrio* hobetsi zuen Onomastika batzordeak, irizpidea baita jatorrizkora jotzea gaztelaniazko formak eta frantsesezkoak bat ez datozenean. Horregatik, Onufrio formari eustea proposatzen du. Beste kasuari buruz, datu gehiago eskuratu eta aztertu ondoren (banatutako erantzunean ageri dira datuak), proposatzen du “Rudesindo edo Rosendo” dagoen tokian “Rudesindo” bakarrik jartzea, grafia hori bat baitator latinetik abiatuta lortzen den grafia-rekin. Hala, irizpide bera aplikatuko da bi kasuetan: *Onufrio* eta *Rudesindo*. Eta, bestalde, gaztelaniazko ordaina Rosendo bakarrik izan beharrean, gaztelaniaz “Rosendo edo Rudesindo” jartzea, forma zaharkitua ere jasotzearren. Onartu egin da.

P. Zabaletak, lehenengo oharrean, santu-santak erabili beharrean santuak erabiltzea proposatu du, baldin eta santu-santak ezinbestekoa ez bada. Batzordeak erantzun du ez dela ezinbestekoa, biak direla zuzenak, eta santu-santak moldeak tradizioa duela hala ekialdeko nola mendebaldeko euskaran. Eta, biak zuzenak izanik, Osoko bilkuraren esku utzi du erabakia. Osoko bilkurak, eztabaidatu ondoren, hau erabaki du: *santu-santak* forma uztea arauan, baina forma hori testuan agertzen den lehen aldian oin-ohar bat jartzea *santu* ere erabil daitekeela jakinarazteko.

P. Zabaletaren bigarren oharra ez dagokio aruari: izenen generoari buruzko gogoeta orokor bat da, eta izen epizenoen gaia lantzea eskatzen du. Pertsona-izendegia aztertzean kontuan hartu beharko da, baina gai hori ez dagokio santutegiko aruari, arauan agertzen diren izenak pertsona jakinei baitagozkie.

P. Zabaletaren hirugarren oharrean, zenbait gai ageri dira. Santutegiko aruari dagokionez, <Donibaneke sua, jaia> puntua aztertu da. Batzordeak argitu du hobespena kentzea proposatzen duela batzordeak, ez besterik; alegia, ez du proposatzen Donibane sua, Donibane jaia gaitzestea edo baztertzea, baizik eta ez lehenestea, eta San Joan sua, San Joan jaia formen maila berean jartzea. Hala onartu da.

Horrenbestez, gorago aipatutako moldaketak eginda, onartu egin da 66. arauaren bertsio berria. Amaitzeko, *Sixto/Sisto* grafiaren puntua aztertu da. Onomastika batzordeak *Sisto* arautzea proposatu du, *Kalisto* arautuaren grafiarekin eta maileguzko hitzen erabaki orokorrarekin (maileguetan kontsonante aurreko x letra s

bihurtzea, hala nola *testu*) bat etorrarazteko. Osoko bilkurak egoki deritzo aldaketari, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegian sextino* sarrera ageri dela eta, M. Urkiak eta A. Sagarnak eskatu dute denbora ematea aztertzeke eta 2019ko lehen sei hilekoan hiztegian egin beharreko berritze-lanetan sartzeko. Onartu egin da, eta, ondorioz, puntu hori erabaki gabe gelditu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (X). Informazio osagarria eman.

Urtarrileko Osoko bilkuran *gaileta* / *galleta* formei buruzko informazio osagarria eskatu zen, eta datu eguneratuekin txostena aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak, A. Sagarnak eta M. Urkiak, hurrenez hurren. ETCri buruzko datuak falta direla aipatu du M. Azkaratek eta hurrengo bilerara ekarriko dutela agindu du idazkariak. Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, martxoaren 18a arte.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Urtarrileko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari M. Azkarate eta X. Videgain euskaltzainek egin dizkiote oharrak, eta guztiak eztabaidatu dira bileran. Gehienak bere horretan onartu dira, baina izan dira aldatzeko eskatu eta onartu diren batzuk: *finantzatu* sarrerako definizioa aldatzeko eskatu dute bileran, “Jarduera edo enpresa bat abian jartzeko edo aurrera eramateko dirua eman”en ordez “Jarduera edo enpresa bat abian jartzeko edo aurrera eramateko baliabideak jarri” eta “Ik. diruztatu” jartzeko eskatuta. *diruztatu* sarrerakoa ere aldatu egingo da: “finantzatu”ren lekuan “diruz hornitu” jasoko da. *hil* sarreran 5. adiera gehitzeko eskatu du ohargile batek, eta hala onartu da.

Urtarrileko bileran eztabaidatutako bi formaren ingurukoa ere erabaki gabe geratu da otsaileko bileran: *hiri* eta *hiribildu*. *Hiri* sarreran adiera historikoa bilduko duena sartzeko eskatu da. P. Zabaletak definizioa zehaztu beharra adierazi du. *hiribildu* sarrerako definizioan “Erdi Aroan”en ordez “Erdi Arotik” jasotzeko eskatu da eta definizioaren bigarren zatiarekin adiera berria osatuko da, definizio generikoagoa emanda, aipamen geografikoak eta pribilegio-kontuak aipatu gabe, horiek adibide

batean biltzea aski izan daiteke-eta (“Bizkaiko hiribilduak eta elizateak” moduko adibideren bat aski izan liteke). A. Urrutiak bidaliko du definizio-proposamena.

Urtarrileko bilkuran eztabaidaturiko bi formei buruzko definizioak hurrengo Osoko bilkuran aurkeztuko dira.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XIII). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Horrela, oharra egiteko epea zabaldu da, martxoaren 18a arte.

6. Esku artekoak.

6.1. Jon Lopategi ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Ohorezko euskaltzaina otsailaren 7an hil da. Muxikan (Bizkaia) jaio zen, 1934ko martxoaren 4an. Filosofia ikasketak egin zituen, Tolosako Sakramentinoen apaizgaitegian (Gipuzkoa). 1958an kantatu zuen lehenengoz plazan, Gernika-Lumon (Bizkaia), eta frankismoaren azken urteetan hasi zen nabarmentzen bertsolari gisa. Jon Azpillagarekin batera, aitzindari izan zen diktadura garaian gai sozialak lantzen. Behin baino gehiagotan espetxeratu zuten, kantatu zituen bertsoengatik.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian gailendu zen, 1989an; eta txapel-dunorde izan zen 1982an eta 1986an. Horrez gain, Bizkaiko lau txapelketa irabazi zituen: 1962an, 1964an, 1966an eta 1987an. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen, 2004ko azaroaren 26an.

Hilberri txostena Xabier Amuriza ohorezko euskaltzainak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.2. Alan Roy King euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Alan Roy King itzultzailea eta euskaltzain urgazlea zendu da, 64 urte zituela. Lytham St Annes-en

(Ingalaterra, Erresuma Batua) jaio zen, 1954ko urriaren 24an, eta Hizkuntzalari-ritzako doktorea zen (Londresko Unibertsitatea). Gramatika batzordeko kide 1985etik, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2003ko urtarrilaren 31n.

Hilberri txostena Miren Azkarate euskaltzain osoak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.3. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Herri Irratia, Radio Nervi3n eta Telebilbao hedabideekin lankidetzaz hitzarmen bana egin da. Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldi instituzionalen, nazioarteko jardunaldi akademikoen, ekintza artistiko-kulturalen eta bestelako ekintzen zabalkundean eta publizitatean gauzatuko da lankidetzaz. Jadanik, 27 hedabiderek egin dira hitzarmenak.

6.4. Euskadi Literatura Sariak. Literatura itzulpena. Zuzendaritzan erabaki da Paskual Rekalde euskaltzain urgazlea eta itzultzailea epaimahaiko izateko proposatzea, 2019ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran. Osoko bilkurak proposamena berrestea erabaki du.

6.5. Hurrengo bilkurak.

Auxtin Zamora eta Henri Duhau ohorezko euskaltzainei omenaldia Senperen, martxoaren 2an, 17:00etatik aitzina. Ekitaldia Senpereko Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz landu dute. Egitaraua X. Videgain buruordeak azaldu du.

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren barruan, “Euskara Ibiltaria” erakusketa berritua aurkeztuko da Bilbon, martxoaren 13an. Martxoaren 14 eta 15ean Euskaltzaindiaren II. Dialektologia Biltzarra egingo da Bilbon, Euskal Museoan. Era berean, martxoaren 15ean, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* 10. liburukia aurkeztuko da, leku berean. Egitaraua banatu eta azalpenak eman ditu A. Arejita Iker sailburuak eta egitasmoaren zuzendariak.

Hurrengo Osoko bilkura martxoaren 30ean, larunbatean, egingo da Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean, goizeko 10:00etan. 12:00etan, M. Urkia euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da Arkupe kultur etxearen aretoan.